

**Eginkizun fitxa: argitalpen proiektu arduraduna***Autonomia handiko postua**Langile estatusa: arduradun batena ("cadre")**Zuzendariaren ardurapean***Postuaren helburuak:**

- Argitalpen proiektu arduradunak akatsik gabe burutu beharko diren dokumentuen ekoizteko baliabideak aurkitzen eta koordinatzen ditu, baliabideak barnekoak ala kanpokoak izanki. Proiektuak gauzatzen dutenekin hitzartu metodologiaren bermea jartzen du.
- Zerbitzu hornitzaileei eskaerak egiten dizkie finkatu aurrekontuei jarraikiz.

**Harremanak:**

<b>Barne harremanak</b>	<b>Kanpo harremanak</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>▪ zuzendaria</li><li>▪ maketista</li><li>▪ mediatekaren arduraduna</li><li>▪ idazkari eta hedapen arduraduna</li><li>▪ teknika eta administrazio kudeatzailea</li><li>▪ proiektu garatzaileak (misio kargudunak)</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Ikaseko zerbitzuen baliatzaileak (irakasleak...)</li><li>▪ kanpoko zerbitzu hornitzaileak (autoreak, ilustratzaileak, itzultzaileak, zuzentzaileak, grafistak, inprimatzaileak...), bai eta Euskaltzaindia eta Hezkunde nazionaleko ikuskariak</li></ul>

**Lan moten deskribapena:****1/ Proiektuen sortzetik argitalpenaz komunikatzeraino**

Argitalpen proiektu arduraduna, Ikasaren euskarazko baliabide pedagogikoen sorkuntza edo itzulpenaren/egokitzapenaren arduraduna da. Ikastresnak Hezkunde nazionaleko programen araberakoak dira.

Irakasleen beharrei adi dago, jokabide egokiak plantan jarritz: web bidezko inkestak, irakasleen arteko bilkurak, ...

**Irakasleen beharretan oinarrituz eta hezkuntza testuingurua kontuan hartuz**, proiektuak aurkezten dizkio zuzendariari, Ikasen argitalpen batzordeak aztertzeke gisan. Itzulpenen kasuan bereziki, egingarritasuna segurtatua izan beharko du orduko, argitalpen proiektu arduradunak, bereziki sail administratibo, juridiko eta teknikoan, bai eta finantza sailean ere.

Baldintzen bildumak egiten ditu eta txostenak lantzen, aplikatu behar diren metodoen arabera.  
**Barne eta kanpo zerbitzu hornitzaileen eginkizunak finkatzen ditu.**

Proiektuetako parte hartzeileen arteko lotura egiten du: alde batetik erabiltzaileak (irakasleak...), eta bestetik autoreak/itzultzaileak, ilustratzaileak, zuzentzaileak eta kanpo zerbitzu hornitzaileak.

**Proiektu bakoitzari doakion finantza fitxa** osatzen du eta zuzendariaren onespena eskatzen.

**Zerbitzu hornitzaileekilako kontratuen burutzeko elementuak** prestatzen ditu (autoreak, ilustratzaileak, itzultzaileak, eta beste argitaletxeak, eskubideak erosten diren kasuetan).

**Plangintzaren ardura du** (argitaratze datatik abiatuz, gibelka), dokumentuen prestatzeko urraspideari jarraikiz (itzulpenak, orrialde antolamendua eta funtzionaltasuna, irudien tratamendua, etab.).

**Edukien ardura du** (testuak, ilustrazioak, etab.) bai eta zuzenketa eta oharrena ere, orohar proiektuen zuzentzearena, argitalpenen koherentziaren eta egiturarena, normei, aurkibideei begira, proiektuaren diseinutik erabiltzaileen eskuetan utzi arte (Ekoizpenaren kalitatearen erantzulea da.).

**Autoreen edo itzultzaileen testuak zuzentzen ditu** (eta beharrez testuak berridazten), zuzentzaileekin hitzartuz, Euskaltzaindiaren gainbegiradaraino. Autoreak eta itzultzaileak zuzenketa jakinean ematen ditu.

**Ortotipografia** saileko zuzenketa egiten edo eginarazten ditu.

**Ikonografia** eta irudien kalitatea kontrolatzen ditu, eta halaber irudiei dagozkien eskubideak.

**Ikastresna berrien kasuan (sorkuntzak), Hezkunde nazionalako ikuskariaren oniritzia segurtatzen du.**

**Argitalpenari buruzko komunikazioa antolatzen du** (Ikasen argitalpen batzordearen kariatara eta irakasleen pedagogia egunen kariatara, besteak beste).

## 2/ Barne eta kanpo zerbitzu hornitzaileen kudeaketa - Proiektuen jarraipena

Argitalpen proiektu arduradunak zerbitzu hornitzaileak (autoreak, itzultzaileak, ilustratzaileak, maketistak/grafistak, zuzentzaileak eta beste) hautatzen ditu, haien gaitasuna maila segurtaturik (beharrez formakuntza/egokitzapena antoluz), eta haiekin hitzartzen.

Argitalpen proiektu arduradunak zerbitzu hornitzaileen lanak koordinatzen ditu. Proiektuei dagozkien informazioen eta bestelako elementuen jarraipena bermatzen du. Zerbitzu hornitzaileekilako bilkurak prestatzen eta kudeatzen ditu.

Proiektuaren aitzinamendua jarraitzen du, epeak eta kalitatea kontrolatuz (proiektu bukatuaren kalitatearen erantzulea da).

Proiektuaren finantza alderdia zuhurki kudeatzen du.

### 3/ Zerbitzu hornitzaileen sarearen garapena

Argitalpen proiektu arduradunak nahi eta gaitasun handiko zerbitzu hornitzaile fidagarriak:

- aurkitzen
- moldatzen
- suspertzen
- bideratzen eta begiratzen ditu.

### Argitalpen proiektu arduradunaren jakitateak eta gaitasunak:

Nola izan jakin	Nola egin jakin
<ul style="list-style-type: none"><li>• Beharren ongi ulertzeko eta bestela adiarazteko gaitasuna</li><li>• Antolatze gaitasuna</li><li>• Gaitasun anitzekoa izan – Egoerari jartzeko gaitasuna</li><li>• Jendeekin aritzeko aisetasuna</li><li>• Besteei behatzeko gaitasuna – Enpatia</li><li>• Jakin nahia – Sortzeko gaitasuna</li><li>• Zorroztasuna</li><li>• Taldean aritzeko gaitasuna eta kontuen emateko gaitasuna</li><li>• Konbentzitzeko gaitasuna</li><li>• Diplomazia</li><li>• Erabakitze gaitasuna</li><li>• Langileen kudeatzeko gaitasuna</li><li>• Hersturatik begiratzeko eta urruntasunaren hartzeko gaitasuna</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Hizkuntza maila bikaina euskaraz eta frantsesez: ortografia, gramatika, joskera, ortotipografia.</li><li>• Komunikatzeko tekniken eta tresnen ezagutza (bereziki Indesign); halaber argitalpenenak, tipografia zuzenketenak</li><li>• Zerbitzu hornitzaileekin lan egiten jakin (baldintzen bilduma idatzi, hornitzaileak hautatu eta jarraipena egin)</li><li>• Eraginaren neurtzen jakin, emaitzen analisiatzen jakin eta esperientziaz baliatzen jakin</li><li>• Proiektu bat baino gehiago betan aitzinarazteko gaitasuna ukan</li><li>• Kate grafikoaren ezagutza</li><li>• Hezkunde nazionalaren programen ezagutza; halaber pedagogia mailako praktikena; epe laburrean eta ertainean gerta daitezkeen berrikuntzei beha egotea</li></ul>